

## **2016KO ZEMENDIAREN 24AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA**

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2016ko zemendiaren 24an, arratsaldeko 7:00etan

### **BATZARKIDEAK:**

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EH Bildu)

### **Zinegotziak:**

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- AITOR IBARZABAL BARTUREN jauna (EH Bildu)
- AITOR APRAIZ IMATZ jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA jauna
- GORKA AZAOLA LÓPEZ DE GEREÑO jauna (EAJ-PNV)
- ALAIN GÓMEZ BILBAO jauna (BAKIOBAI)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI).

EAJ-PNV taldeko JOSÉ ANTONIO ABIO ERKOREKA jauna ez da bertaratu.

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean honako gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

### **1.- 2016KO ZEMENDIAREN 10EAN EGINDAKO APARTEKO UDALBATZAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.**

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2016ko zemendiaren 10ean egindako aparteko udalbatzaren akta, eta alkateak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori ago batez onartu dabe.

## **2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON.**

Gai honeri hasikera emoteko, idazkariak honako dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

340/2016.- Oktober jaia egiteko udal baimena.

341/2016.- Animalia arriskutsuak eukiteko udal lizentzia.

342/2016.- Herri bideetan sortu daitekezan kalteak ziurtatzeko abala itzultzea.

343/2016.- Egurra herri bideetatik atarateko udal lizentzia.

344/2016.- Fakturen obligazioak onartzea.

345/2016.- Spota grabatzeko udal baimena.

346/2016.- Pergola baten inguruan aurkeztutako alegazioak ezestea.

347/2016.- Areaga bideko garajeen partzela baten esleipena eskualdatzea.

348/2016.- GPNOR enpresari kontratu txikia esleitzea.

349/2016.- Urriko nominak onartzea.

350/2016.- Lantaldean jarduteko behargin bat kontratatzea.

351/2016.- Kolunbario bat kontzesinoan emotea.

352/2016.- Komunitade bateri igogailuak aldatzeko udal lizentzia emotea.

353/2016.- Kultur Etxeko gela bat erabilteko baimena.

354/2016.- Elexaldeko sektorea urbanizatzeko gastuak ordaintzeko eskatzea jaube bateri.

355/2016.- Elexaldeko sektorea urbanizatzeko gastuak ordaintzeko eskatzea jaube bateri.

356/2016.-Elexaldeko sektorea urbanizatzeko gastuak ordaintzeko eskatzea jaube bateri.

357/2016.- Elexaldeko sektorea urbanizatzeko gastuak ordaintzeko eskatzea jaube bateri.

358/2016.- Elexaldeko sektorea urbanizatzeko gastuak ordaintzeko eskatzea jaube bateri.

359/2016.- Elexaldeko sektorea urbanizatzeko gastuak ordaintzeko eskatzea jaube bateri.

360/2016.- Elexaldeko sektorea urbanizatzeko gastuak ordaintzeko eskatzea jaube bateri.

361/2016.- Fakturen obligazioak onartzea.

362/2016.- Sastarren tasako 3. hiruhilekoari jagokon errolda onartzea.

363/2016.- Fakturen obligazioak onartzea.

364/2016.- Fakturen obligazioen ordainketak onartzea.

Ostean, Ametz Jauregizar alkate andreak, dekretu honeei buruzko azalpenak emon dauz:

350/2016: dekretua: udaleko kaleko zereginetan aritzeko peoiak aldi baterako kontratau ahal izateko, alkatetzaren maiatzaren 21eko 136/2016ko dekretuaren bidez, lan-poltsa onartu zan urte baterako. Eta dekretu horren bitartez egin dana da poltsa horren ordena jarraituta pertsona bat sei hilabeterako kontratau.

354tik 360tara arteko dekretuak: Elexalde SUR.6 egoitzazko eremuari jagokon birpartzelazino proiektuaren aldarazpenaren (211/2012ko dekretuaren bidez onartuta) behin-behineko likidazioa dala eta, jaube batzuei zenbateko zehatzak batzuk ordaintzeko eskatzen jake, udalari zor deusiezanak, hain zuzen be. Hori bai, udala jakitun da zor horreen zenbatekoak handiak diran ezker, ordaintzeko zailtasunak daukiela, eta, hori dala eta, udala aztertzen dabil zelan ahal daben zorrok konpentsau euren ekonomiari harik eta kalteen txikiena eginez. Beraz, dekretuen jakinarazpena egin jake zorrok hor dauzala gogoratzeko beste barik.

Udal idazkariak, bere aldetik, honen barri emon dau: dekretuaren zerrendan Alkatetzaren 346/2016 dekretua ageri da, eta, bertan, Uribe kaleko 10.eko eraikinaren etxebizitza batean egindako pergolea behera botatea ebazten da. Bada, horri buruz esatea baino ez pergolea kenduta dagoala.

### **3.- BAKIOKO ALKARTEEI DIRU-LAGUNTZAK EMOTEKO 2016KO DEIALDIA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ**

Lehenengo eta behin, Ametz Jauregizar alkate andreak hauxe adierazo dau:

Udalbatzak 2016ko zemendiaren 10ean egindako osoko bilkuran kultur eta kirol jardueretarako diru-laguntzei buruzko ordenantzea behin betiko onartu eban, eta hemen egin gura dana da, ordenantza horretan oinarrituta, Bakioko alkarteei diru-laguntzak esleitzeko deialdia onartu; izan be, 2016ko udal aurrekontuko gastuen orriko laugarren kapituluan diru-laguntzetarako 27.000,00 euro zainpetuta dagoz.

Eskabideak eta agiriak aurkezteko deialdia zemendiaren 25etik abenduaren 9ra arte zabalik egongo da. Deialdiaren bidez instrukzino-organoa izendatzen da aurkeztutako agiriak aztertu eta baloratzeko.

Horren ostean, zinegotziek botoa emoteari ekin deutse. Beraz, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

**Kultur eta kirol jardueretarako diru-laguntzak alkarteei emoteko 2016ko deialdia onartzea, horren edukia hauxe izanik:**

***BAKIOKO UDALERRIKO ELKARTEEI 2016. URTEAN URTEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA ARAUTZEN DUTEN BERARIAZKO OINARRIAK***

**SARRERA**

*Bakioko Udalak deialdi honen bidez emango dituen diru-laguntzen helburu dira Bakion egoitza duten kultur eta kirol elkarte guztiak. Gehienbat elkarte txikiak dira, sarri langilerik gabe eta boluntarioei esker jarduten dutenak. Bestaldetik ere, udal honek badaki laguntza publiko hauen xedea irabazi asmorik gabeko erakundeen jarduerak laguntzea, saritzea eta baloratzeta dela, babes hori ezinbestekoa baita erakunde eskatzaileek bizirik jarrai dezaten. Azkenik ere, aintzat izan behar da talde horien ohiko jarduera dela garapeneko edozein gizarteren euskarrietako bat.*

**ESPARRU ARAUEMAILEA**

*Oinarri zehatz hauek argitara eman dira Bakioko Udalbatzak 2016ko urriaren 10eko bilkuran behin betiko onetsitako diru-laguntzei buruzko udal ordenantzak eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak ezarritakoarekin bat etorritz.*

**FINANTZAZIOA**

*Deialdi honen xedea betetzeko, finantzazioa aurrekontu-kreditu baten kontura egingo da. Aurrekontu-kreditu horren gehienezko kantitatea 27.0000 eurokoa izango da, eta 330/4810120 aurrekontu partidan jasota dago.*

*Diru-laguntza hauek bateragarriak dira beste erakunde publikoetatik edo pribatuetatik jaso*

*ahal diren bestelako diru-laguntzekin, laguntzekin, sarrerekin zein baliabideekin, Diru-laguntzei buruzko Ordenantzak ezarritakoa betetzen bada.*

## **ARAUDIA**

### **1.- HELBURUA**

*Deialdi honen helburu nagusia honakoa da: Bakioko kultur eta kirol elkarteek 2016an programatutako ohiko jarduerak diruz laguntzea, saritzea eta baloratzea.*

### **2.- ERAKUNDE HARTZAILEAK**

*Deialdi honetan araututako diru-laguntzak eskatzeko honako baldintza hauek bete behar dira: Bakion egoitza soziala edukitzea edo Bakioko udalerrian egotea, elkarte baten izaera edukitzea eta kultur edo kirol jarduera bat garatzea, baldin eta Bakioko udalerrarentzat interesgarria bada eta Bakioko Udalak garatutako jarduerak hobetzen, osatzen edo ordezkatzten baditu diru-laguntzen emakida arautzen duen udal ordenantzak ezarritakoaren arabera.*

*Eskatzaileak elkarte izaera izango du eta Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan izena emanda izan beharko du.*

### **3.- DIRU-LAGUNTZA MOTA**

*Diru-laguntza hauek erakunde eskatzailearen ohiko funtzionamendu programako jarduerak laguntzeko eta sustatzeko dira. Jarduera horiek 2016. urtean garatutakoak izango dira.*

### **4.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA**

*Eskabideak Bakioko Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira; era berean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritakoaren arabera ere aurkeztu ahalko dira.*

*Eskabideak aurkezteko epea azaroaren 25etik abenduaren 9ra artekoa izango da, aipatutako bi egun horiek barnean direla.*

*Eskabideak aipatutako epetik kanpo aurkezten badira, atzera botako dira. Kasu horretan, eskaera izapidetu gabe artxibatuko litzateke.*

### **5.- ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA**

*Informazioa eta eskabideen ereduak eskuragarri egongo dira Udaleko web orrian ([www.bakio.org](http://www.bakio.org)).*

*Eskaerak deialdi honi atxikitako eranskinak betez aurkeztu ahalgo dira. Edozein kasutan ere, diru-laguntzei buruzko udal ordenantzaren 7. artikulua ezarritako dokumentazioa aurkeztuko da betiere.*

*Bestalde, udalak elkartean gainean dituen datuak eguneratze aldera, elkarteek indarrean dituzten estatutuak aurkeztu beharko dituzte gainerako agiriekin batera.*

*Udalak, egokitzat jotzen duenean, eskatzaileari dokumentazio gehiago eskatu ahal dio aurkeztutako proiektuaren balorazioa egiteko. Kasu horretan, dokumentazio hori aurkeztea derrigorrezkoa izango da eskaera aurrera eramateko.*

## **6.- ESKABIDEAK BAZTERTZEA**

*Ez dira kontuan hartuko epe mugatik kanpoko eskariak, ez eta beharrezko dokumentaziorik gabe aurkeztutako eskabideak ere.*

## **7.- ESKABIDE OSATUGABEAK EDO AKASTUNAK**

*Aurkeztutako eskabide eta agiriak osatugabeak badira edo zuzen daitekeen akatsik badute, 5 eguneko epea utziko zaio eskatzaileari dokumentazioa osatzeko edo zuzentzeko; epe hori egin beharreko zuzenketari buruzko jakinarazpena egin eta biharamunetik hasiko da. Akatsak zuzendu ezean edo dokumentazioa osatu ezean, eskabideari uko egiten diola ulertuko da.*

## **8.- NORGEHIAGOKA**

*Deialdi honetako diru-laguntzak norgehiagokaren erregimenari jarraituz esleituko dira, hau da, aurkeztutako eskabideak balioztatuko dira eta, ondoren, lehentasuna erabakiko da, horretarako diru-laguntzei buruzko udal ordenantzak ezarritako irizpideei jarraituz.*

## **9.- BALORAZIOA EGITEKO IRIZPIDEAK**

*Diru-laguntza erabakitzerakoan, oro har honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:*

### **a.- EUSKAREN ERABILERA SUSTATZEA ETA PROIEKTUA EUSKARAZ GARATZEA (gehienez 10 puntu)**

*Erabilera ahoz eta idatziz (3 puntu)*

*Entseguak, entrenamenduak, tailerrak, aurkezpenak... (3 puntu)*

*Euskararen erabilera sustatzea elkarteko kideen artean eta ikus-entzuleen edo partaideen artean (4 puntu)*

### **b.- BERDINTASUNA SUSTATZEA GIZONEZKO ETA EMAKUMEZKOEN ARTEAN (gehienez 5 puntu)**

*Idatzizko nahiz ahozko komunikazioan (2 puntu)*

*Zuzendaritzan (puntu 1)*

*Elkarte barruan genero berdintasuna sustatzeko proposatutako ekimenak (2 puntu)*

**c.- TALDEAREN INPLIKAZIO ETA LANKIDETZA UDALAK ANTOLATUTAKO JARDUERETAN (gehienez 10 puntu)**

*Antolakuntza: Olentzero, Euskararen eguna, jai batzordea, euskara batzordea ... (5 puntu)*

*Partaidetza: Santa Ageda, Euskararen eguna, jaiak... (5 puntu)*

**d.- PROIEKTUAREN EZAUGARRIAK (gehienez 10 puntu)**

*Jardueren maiztasuna eta kopurua (3 puntu)*

*Egindako jardueren ikus-entzuleen kopurua (5 puntu)*

*Elkarte eskatzailearen kide kopurua (2 puntu)*

**f.- BESTELAKOAK (gehienez 20 puntu)**

*Euskal kultura edota Bakioko irudia kanpoaldean zabaltzea eta sustatzea (2 puntu)*

*Genero berdintasuna, euskararen erabileraren sustapena, ezinduen edo etorkinen integrazioa eta antzeko gaiak hobetzeko antolatzen diren ikastaro edo hitzaldietan parte hartzea (3 puntu)*

*Ezinduak edota etorkinak integratzeko ahaleginak (2 puntu)*

*Belaunaldien arteko harremanak sustatzeko egindako ahaleginak (2 puntu)*

*Proiektu bakoitzaren alde berritzaile eta osagarriak, beste ataletan jorratu gabeak (3,5)*

*Bestelako laguntza ekonomikoak eskuratzeko egindako ahaleginak (loteria, kamisetak, udalez gaindiko erakundeak...) (3 puntu)*

*Laguntza eskatzeko aurkeztutako txostenaren kalitate eta zehaztasuna (3 puntu)*

*Elkarte bakoitzaren antzinatasuna (1,5)*

*Irizpide hauen balorazio zehatza eranskinetako taulan azaltzen da.*

**10.- IZAPIDETZEA ETA EBAZPENA**

*Oinarri zehatz hauetan jasotako laguntzak emateko instrukzio-organoa honako hau izango da:*

*LEHENDAKARIA: Kultur zinegotzia.*

*KIDEAK: Bako Bizi batzordeko alderdi bakoitzeko zinegotzi bat, kultur teknikaria eta euskara teknikaria.*

*IDAZKARIA: Udal idazkaria edo horrek izendatutako udal teknikaria.*

*Ordenantzak ezarritakoari jarraituz, udalbatzak ebatziko ditu diru-laguntzak, behin instrukzio-organoak emandako ebazpen-proposamena eta beharrezko informazio-batzordeak egindako irizpena kontuan hartuta.*

**11.- DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA ORDAINTZEKO MODUA**

*Deialdi honetako diru-laguntzak bateragarriak izango dira bestelako erakunde publikoek zein pribatuek xede berarekin emandako edozein diru-laguntzarekin. Ez da gainfinantzaziorik izango, baldin eta diruz lagundutako guztizko kopuruak jardueraren guztizko kostua gainditzen ez badu.*

*Eman beharreko zenbatekoari dagokionez, ardatza honakoa izango da: eskatutako diru kopurua. Hala, kopuru horri lortutako puntuen portzentajea aplikatuko zaio, betiere diru-laguntzetarako ezarritako kreditua kontuan hartuz.*

## **12.- ERAKUNDE ONADUNAREN BETEBEHARRAK**

*Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak aurkeztutako proiektua aurrera eramane behar du udal ordenantzaren 15. artikulua ezarritakoarekin bat etorritz.*

*Nolanahi ere, emakidaren ebazpena egokituta, onuradunak haren edukia aldatzeko eskatu ahalko du, eta baimendu ahal izango da, baldin eta besteen eskubideei kalterik egiten ez bazaie.*

*Erakunde eskatzaileak, diru-laguntzaren onuraduna den kasuan, nahitaez barne hartu beharko ditu sustapen-elementuetan eta diruz lagundutako jardueraren horma-irudi, testu edo agirietan, Bakioko Udalaren babesa lortu duela; halaber, euskaraz edo EAEko bi hizkuntza ofizialetan landu beharko ditu horma-irudiak, testuak eta agiriak.*

## **13.-DIRU-LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA**

*a. Jasotako diru-laguntzari emandako erabilera justifikatzea da onuradunek duten beste betebeharrerako bat.*

*b. Aipatu bezala, horiek justifikatzeko, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:*

*b.1. Gauzatutako jardueren memoria zehatza.*

*b.2. Jarduerak sortutako sarrera eta gastu guztien balantzea. Sarreraren zerrendan edozein kontzepturengatik lortutako sarrerak zehaztuko dira, hala nola: bazkideen kuotak; edozein erakundetatik (publikoak nahiz pribatuak izan) eskuratutako diru-laguntzak edo babesletzak; sarreraren salmentagatik edo jendeak emandako borondatea dela-eta bildutako zenbatekoak; loteriak edo zozketak; txosnetan eta abarretan edariak edo jakiak salduz ateratakoa; publizitatea, materialaren (eranskailuak, pinak eta abar) salmentatik ateratakoa eta abar.*

*Gastuen eta inbertsioen zerrenda egongo da sailkatuta diruz lagundutako jardueraren gastuak edota inbertsioak bilduz. Zerrendan bertan, hornitzailea eta agiria identifikatu behar dira, bai eta hari dagokion zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, zenbateko hori zein egunetan ordaindu zen ere. Pertsona onuradunek, gutxienez, lau urtez kontserbatuko dituzte fakturak edo merkataritzako trafiko-froga balioa edo eraginkortasun administratiboa duten agiriak, baita ordainagiriak ere.*

*Diruz lagundutako programarekin edota jarduerarekin harreman zuzenik ez duten gastuak (catering eta ordezkariak, bazkariak eta antzekoak) ez dira justifikazio moduan erabiliko, baldin eta programaren kostuaren % 10 gainditzen badute.*

*Langileen gastuak barne hartzen dituzten diru-laguntzen kasuan, dagozkien nominak edo soldaten ordainagiriak aurkeztu beharko dira, datu hauekin: izena eta bi abizenak, NAN zenbakia, hilabetea, zenbateko gordina, dagozkion beharpenak eta zenbateko likidoa; baita Gizarte Segurantzako kotizazio-buletinak ere. Halaber, nominen ordainagiriak aurkeztu beharko dira, Gizarte Segurantzako kotizazioen agiriak eta zerga-kopuruen ordainagiriak.*



*Horretarako, hautatutako onuradunei aipatutako dokumentazioa bidaltzeko eskatzeko aukera izango du administrazioak.*

*b.3. Diruz lagundutako jarduera dela eta argitaratutako liburuxka, horma-irudi, liburu, bideo, CD-Rom eta abarren ale bana.*

*c. Onuradunak aurkeztu dituen jatorrizko agiriak behar baditu, egiaztagiriak fotokopiekin batera aurkeztuko dira, horiek egiaztatu eta jatorrizkoak zigilatu ondoren onuradunari itzultzeko.*

*d. Aurkeztutako egiaztagiri guztiek diru-laguntza ematen den ekitaldi ekonomikoko urte naturalean dataturik egon behar dute, diru-laguntza emango bazaie.*

#### **14.- DIRU-LAGUNTZA ITZULTZEA**

*Diru-laguntza itzuli beharko da, baldin eta diru-laguntzei buruzko udal ordenantza 18. artikulua jasotako egoeraren bat gertatzen bada. Itzuli beharreko diru-laguntzari beharrezko berandutzazko interesak aplikatuko zaizkio.*

#### **15.- ZEHAPEN-ARAUBIDEA**

*Zehapen eta arau-hausteen araubidea Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen IV. tituluan eta Administrazio Publikoaren Zehapen Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritakoa izango da.*

### **4.- EUSKERA IKASTEAGAITIKO DIRU-LAGUNTZAK EBATZI, HALA BEHAR BALITZ**

Amets Jauregizar alkate andreak, dino, horren harira, Bakioko Udaleko euskera teknikariak egindako txostena kontuan hartu beharrekoa dala, horren edukia hauxe izanik:

#### ***Euskara ikasteagaitiko laguntzei buruzko txostena***

*Bakioko Udalbatzak, 2016ko ekainaren 30ean egindako osoko bilkuran, onetsi zuen euskara 2015-2016ko ikasturtean ikasteagaitiko diru-laguntzen deialdia.*

*Deialdian 2016ko urriaren 31ra arteko epea ezarri zen eskabideak aurkezteko. Gauzak horrela, epemuga horretara arte bederatzi eskabide aurkeztu dira.*

*Era berean, deialdian honako baldintza orokor hauek ere zehaztu ziren, diru-laguntza eman ahal izateko: Bakion erroldaturik egotea eta gutxienez %75etik gorako asistentzia egiaztatzea.*

*Bestalde, egindako ikastaroetan aprobetxamendu egokia ziurtatu beharra zegoen eta hori guztia euskaltegiaren ziurtagiri bidez egiaztatu.*

*Baldintza horiek beteta, matrikularen % 30 lagunduko zen diruz. Hala ere, eskatzaileei gehienez eman zekizkiekeen diru-laguntzen kopurua 95 eurokoa izango zela finkatu zen.*

*Halaber, Bakioko Udalak 2.000 euroko diru-zainpeketa onartu zuen udal aurrekontuaren 3304810119 partidan, laguntzak eman ahal izateko.*

*Horrenbestez, eskabideak bederatzi izan direnez, aurrekontuan gehienez ere betearazi beharko litzatekeen diru kopurua honakoa da: 855 euro (95 euro bider 9 eskabide).*

*Azkenik, espedientean jasotakoari jarraikiz, aurkeztutako eskabide guztiak beharrezko epearen barruan jaso dira, guztiak betetzen dituzte asistentziari eta aprobetxamenduari dagozkien baldintzak eta matrikula guztiak 95 euroko laguntza jasotzeko beharrezko 316,66 euroko diru-kopurua gainditzen dute.*

*Beraz, udalbatzak 2016ko ekainaren 30ean egindako osoko bilkuran onartutako deialdiari jarraikiz, interesdun guztiak 95 euroko laguntza jasotzeko eskubidea dute.*

*Beraz, organo eskudunari proposatzen zaio interesdunei diru-laguntza jasotzeko beharrezko ebazpena hartzea, eskaera-egile guztiak 2015-2016ko ikasturtean euskara ikasteagaitiko 95 euroko laguntza jaso dezaten.*

Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

**1.- 2015-2016 ikasturtean euskera ikasteagaitiko diru-laguntzak jasoteko aurkeztutako bederatzi eskatzaileen eskabideak ontzat emotea eta, beraz, bakoitxari 95,00 euroko diru-laguntza emotea.**

**2.- Atal ekonomikoari agindua ematea, eskatzaile bakoitzari dagokion 95 euroko diru-laguntza bideratzeko.**

**5.- INDARKERIA MATXISTAREN AURKA, DATORREN ZEMENDIAREN 25EAN, EGINGO DIRAN GIZARTE-MOBILIZAZINOEI ATXIKIMENDUA ADIERAZO, HALA BEHAR BALITZ.**

Ametz Jauregizar alkate andreak, ondoko hau adierazo dau:

Informazio Batzordean berba egin genduan modura, hemen onartzea proposatzen dana da Bakion indarkeria matxistaren aurka, bihar, zemendiak 25, egingo diran gizarte-mobilizazinoei atxikimendua adierazotea. Hori dala eta, bihar, kultur-etxean indarkeria

matxistaren aurkako protokoloa aurkeztuko da eta, ostean, kontzentrazioa eta kalejira egingo dira.

Horrenbestez, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi dau: **Bakion indarkeria matxistaren aurka, bihar, zemendiak 25, egingo diran gizarte-mobilizazioei atxikimendua adierazotea**

## **6.- ABENDUAREN 3KO EUSKEREAREN NAZINOARTEKO EGUNA DALA ETA, EUSKEREAREN ALDEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALARI ATXIKIMENDUA ADIERAZO, HALA BEHAR BALITZ.**

Lehenengo eta behin, Ametz Jauregizar alkate andreak adierazpen horren testua irakurri dau, berau EUDELeK udaletara bialdutakoa izanik:

***Zer egin dezaket nik euskararen alde?**  
Euskararen Nazioarteko Eguna, 2016*

*Adierazpena*

*Abenduaren hirua pozik bizitzeko eguna dugu euskaldunok. Duela berrogei urte arte gizartearen gainbehera zihoan euskara hazkunde nabarian jarri dugu. Batik bat belaunaldi zaharrenen hizkuntza izatetik, belaunaldiarteko hizkuntza eta, batez ere, gazteen hizkuntza izatera pasatu da. Ingurune jakin batzuetara mugatuta egotetik sekula bereak izan ez dituen esparru sozialetan ere nor izatera.*

*Europako hizkuntza zaharrena izatetik, hizkuntza modernoa eta gaur egungo gizartera egokituazatera.*

*Euskara bizitzen ari den zabalkundea gizarte osoaren nahi eta ahaleginari esker gertatu da.*

*Norbanako askoren eta kolektibo askoren ekimenari esker. Jende askoren eskuzabaltasunari esker.*

*Gizarte osoak proiektu kolektibo gisa bereganatu izanari esker. Konpromiso publiko eta pribatuari esker. Gizartearen adostasunari esker.*

*Hizkuntza-elkarbizitza gizarte-elkarbizitzaren osagai egin dugu, gizarte-kohesioaren funtsezko elementu. Hizkuntzen berdintasuna eta norbanakoaren hizkuntza-hautua herritar guztion aukeraberddintasunaren oinarrian jarri ditugu.*

*Euskararen Nazioarteko Eguna badugu, baita ere, indarberritzeko eguna. Izan ere, gaur egun, oraindik, bi hizkuntza ofizialen berdintasun sozialetik urrun gaude.*

*Euskarak eta gaztelaniak, erabilerari dagokionez, legezko aitortza berdina dute, baina gizartean egoera desberdina bizi dute.*

*Horregatik, urratsak ematen jarraitu nahi dugu. Bi hizkuntza ditugu ofizialak Euskal Autonomia Erkidegoan. Baina helburu izaten jarraitzen du, gizartean oro har, hizkuntzen arteko berdintasun sozialera iristeak. Hizkuntza-aniztasunaz harro gaudelako eta euskararekin munduko hizkuntzaaniztasunari egiten diogun ekarpenaz ere harro gaudelako. Hizkuntza-aniztasunak gure gizartea aberasten duelako, euskarak hizkuntza-aniztasuna aberasten duelako eta, beraz, gutako bakoitza aberasten gaituelako. Euskara, Etxeparek esan bezala, plazan nahi dugu, indartsu eta sendo nahi dugu bere lurralde guztietan.*

*Euskara hizkuntza erabilia eta bizia izatea: horra gure helburua. Guztion gogoa eta ahalegina eskatzen dituen helburua; helburu ilusionagarria; denoi dei egiten digun helburua: norbanakoei eta kolektiboei, herri aginteei, alderdi politikoei, langileen sindikatuei, enpresari-elkarteei, kirol, aisialdi nahiz kultur arloko elkarteei, gizartearen arlo desberdinetako erakundeei, eta abarri. Gustuko dugun helburua da, gustura hartzen dugun konpromisoa.*

*Horregatik, herri aginteok eta askotariko gizarte-eragileok elkar hartuta ospatu nahi izan dugu aurten Euskararen Eguna. Euskara eta hizkuntza-elkarbizitza sendotzeko konpromiso bat hartu nahi izan dugu, nork bere neurrikoa, nork bere ahalarren arabera. Horretarako, gure buruari galdera bat zuzendu diogu: “Zer egin dezaket nik euskararen alde?”.*

*Adierazpen honen sinatzaileok galdera horri erantzun propioa eman nahi diogu, gure esparruan euskara modu edo neurri batean zein bestean indartzeko erantzun bat.*

*Era berean, herritar guztiak eta gizarte-eragile guztiak gonbidatu nahi ditugu galdera hori bera egitera eta nork bere neurriko erantzuna hausnartzera, guztion ekarpenak baitira baliagarri eta onuragarri euskararen biziberritzeko eta guztion arteko elkarbizitza sendotzeko.*

*Ospa dezagun, bada, pozik eta harro Euskararen Nazioarteko Eguna. Eta bizi dezagun aurrera begira euskara, gure artean eta egunerokoan, hizkuntza bizia eginez, “Zer egin dezaket nik euskararen alde?” galderari erantzunez eta galdera bera euskal gizarte osoan zabalduz.*

Segiduan, zinegotziek botoa emon dabe. Halanda ze, Bakioko Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), hauxe erabagi dau: **abenduaren 3an euskarearen nazioarteko eguna dala-eta transkribatutako adierazpen instituzionala onartzea.**

**7.- AGIRRE LEHENDAKARIA PLAZAKO 3.EAN DAGOAN UDALAREN ERAKINAREN BEHEKO SOLAIRUKO LOKALAREN ERABILERAREN LAGAPENA LUZATZEKO ERABAGIA HARTU, BETI BE “CORREOS Y TELÉGRAFOS” ALKARTE PUBLIKOAK POSTA BULEGO MODURA ERABILTEKO. LUZAPENA 2017KO URTARRILAREN 1EAN INDARREAN SARTUKO LITZATEKE.**

Atoan, idazkariak berbea hartu eta espedientearen nondik norakoa azaldu dau, honako hau adierazoz:

“Posta bulegoa 2011 urteko amaierara arte lokal pribatu baten kokatuta egoan, udalak, ordura arte, lokalaren jaubeari hilero alokairu-prezio zehatz bat ordaintzen eutsan eta udalak prezio horren erdia berreskuratzen eban “Correos y Telegrafos, S.A.” Estaduko Alkartearen aldetik. Baina jaubeak lokala berarentzat behar ebala eta, urte horretako abenduaren 31rako lokala erabilteari itxi behar izan eutsan. Horregaitik, alkarte horregaz hartu-emonetan parau ginan eta esan euskun zerbitzuen murrizketa politekoa dala-eta ez eukala asmorik Bakion lokalen bat erosi edo alokatzeko posta bulegorako.

Hori ikusirik, Bakioko Udaltzakar, 2011.11.10ean, erabagi hau hartu eban: *Agirre Lehendakaria plazako 3.ean dagoan udal eraikinaren beheko solairuko lokala udalak posta bulego modura atondu eta Posta Sail horrerik lokalaren erabileraren lagapena egitea, jarduera horrek 2011ko abenduaren 1etik 2015eko abenduaren 31ra arteko iraupena izanik, urtebeteko luzapenak egiteko aukerak izango dirala kontuak harturik, beti be aurretiazko alde bien adostasunez.*

Hori dala eta, Udaltzakar, 2015.11.26an, lokalaren erabileraren lagapena 2016ko urtarriletik abenduaren 31ra arte luzatzea erabagi eban. Beraz, luzapen hori aurtengo abenduaren 31n amaitzen dan ezker, lokalaren erabileraren lagapena beste urtebeterako luzatzea proposatzen da, aste honetako astelehenean egindako Informazio Batzordean berba egin zan modura.

Hortaz, Bakioko Udaltzakar, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), hauxe erabagi dau: **Agirre Lehendakaria plazako 3.ean dagoan udal eraikinaren beheko solairuko lokalean posta bulegoa dagoala-eta bulegoak hartzen dauan esparruaren erabileraren lagapena urtebeterako luzatzea, beti be “Correos y Telegrafos, S.A.” Estaduko Alkartearen alde, hau da, 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte”.**

**8.- HIRUGARREN HIRUHILEKOARI JAGOKOZAN BATEZ BESTEKO ORDAINKETA EPEAREN ETA 2016KO 24. BERANKORTASUN TXOSTENAREN BARRI EMOTEA.**

Garagarriaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua arabera, diruzainek edo kontu-hartzaileek hiru hilabetetik hiruhilabetera txostena egin behar dabe, onartutako

fakturen ordainketen betearazpenari buruzko egoera zein dan azalduz, eta horren barri udalbatzari emon.

Hori dala eta, Idazkari-kontuhartzaileak 2016ko zemendiaren 16ko txostena egin dau udalbatzari jakinarazoteko. Izan be, txosten horren eguna erreferentzia modura hartuta 2016ko hirugarren hiruhilekoari jagokon berankortasuneran datuak honeexek dira, beti be bertan azaltzen danaren arabera:

<b><i>HIRUHILEKOAN EGINDAKO ORDAINKETAK</i></b>	
<i>Ordaindu diran legezko epearen barruan</i>	<i>Ordaindu diran legezko epe barruan</i>
396.288,43 €	256 ordainketa kopuru
<i>Ordaindu diran legezko epetik kanpora</i>	<i>Ordaindu diran legezko epe kanpora</i>
37.976,84 €	19 ordainketa kopuru

<b><i>HIRUHILEKOAN ORDAINITZEKO DAUDENAK</i></b>	
<i>Ordaintzeko legezko epearen barruan</i>	<i>Ordaintzeko legezko epetik kanpo</i>
81.917,88 €	1.601,04 €

Horreei buruzko datuak txosten horri erantsitako zerrendan agiri da.

Horrezaz gain, 2016ko hirugarren hiruhilekoari jagokozan batez besteko ordainketa epearen datuak ageri dira txosten horretan.

Zinegotziak horren guztiorren jakinaren ganean geratu dira.

#### **9.- ESKAERAK ETA GALDERAK.-** Inork ez dau eskaerarik edo galderaik

Eguneko aztergaien zerrenda barruan, ezta zerrendatik kanpo be, gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate andreak batzar hau 19:25ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkate andrea

Idazkaria